EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
IRTEERA - SALIDA
2015 APR. ABR. 21
20.458

10\11\05\00\0045 espediente zk.

N.º expediente: 10\11\05\00\0045

Avet ADONTS jn.
Armeniako Errepublikaren Enbaxadore Berezi eta Guztiahalduna

Sr. Avet ADONTS
Embajador Extraordinario y Plenipotenciario de la República de Armenia

Jaun agurgarria:

Eusko Legebiltzarrak, 2015eko apirilaren 16an egindako osoko bilkuran, adierazpen instituzional bat onetsi du, armeniar herriaren sarraskia hasi zeneko mendeurrena dela eta, ondoko testuaren arabera:

"2015eko apirilaren 24an armeniar herriaren sarraskia hasi zeneko mendeurrena izango da. Otomandar Inperioko agintariek burututako sarraskiak milioi eta erdi pertsona baino gehiago deuseztatu zituen eta deportazio masiboak eragin. Hondamen hori, Lehen Mundu Gerraren kontestuan, gizadiaren historia modernoko genozidio beldurgarrienetakoa izan zen; gainera, ondorio urratzaileak izan zituen milaka errefuxiaturentzat, ondoren beste kontinente batzuetara –horietako askok Europar Batasunera– ihes egin behar izan zutenentzat.

Turkiako Gobernuak, nazioarteko komunitateak behin eta berriro egindako eskariak aintzat hartu gabe, oraindik ere ez du ofizialki aitortu ankerkeria historiko hori, berariaz antolatutakoa, armeniar herriaren aurkako genozidio planifikatu gisa. Hala ere, positiboki baloratu beharra daukagu Turkiako Errepublikako agintariek, Erdogan presidenteak eta Davutoglu lehen ministroak, sustatutako adiskidetze-ahalegina, doluminak eskaini baitizkiete biktimen familiei eta aitortu egin baitute armeniarren aurka bereizkuntzarik gabe burututako indarkeria.

Uste dugu memoria, aitortza eta justizia oinarrizko zimenduak direla bi herri horien arteko etorkizuneko elkarbizitza pixkanaka eraikitzeko, eta, hortaz, adiskidetze iraungarri batek berekin dakartzala funtsean partekatutako egia eta

Estimado señor:

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 16 de abril de 2015, ha aprobado una declaración institucional con motivo del centenario del comienzo de la masacre del pueblo armenio, con arreglo al siguiente texto:

"El 24 de abril de 2015 se conmemora el centenario del comienzo de la masacre del pueblo armenio, que, perpetrado por los gobernantes del Imperio otomano, produjo la aniquilación de más de un millón y medio de personas y unas masivas deportaciones. Este exterminio, en el contexto de la Primera Guerra Mundial, constituyó uno de los genocidios más horrendos de la historia moderna de la humanidad, que tuvo asimismo efectos lacerantes sobre los miles de refugiados que posteriormente tuvieron que huir a otros continentes, muchos de ellos a la Unión Europea.

El Gobierno de Turquía, a pesar de los requerimientos reiterados de la comunidad internacional, todavía no ha reconocido oficialmente dicha histórica atrocidad, deliberadamente organizada, como un genocidio planificado contra el pueblo armenio. No obstante, debemos valorar positivamente el intento de reconciliación promovido por las autoridades de la República de Turquía, el presidente Erdogan y el primer ministro Davutoglu, con las condolencias ofrecidas a las familias de las víctimas, así como la admisión de la violencia indiscriminada ejercida contra los armenios.

Consideramos que la memoria, el reconocimiento y la justicia son fundamentos vitales para construir progresivamente la convivencia futura entre estos dos pueblos, por lo que entendemos que una reconciliación durable

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

memoria bat. Ondorioz, beharrezkotzat jotzen dugu elkarrizketa garden eta zintzo bat Turkiako eta Armeniako errepubliketako agintarien artean, etorkizun komun bat eraikitzeko, historiako kapitulu tragiko hori behin betiko eta modu egokian ixteko aukera emango duena.

Zentzu horretan, espero dugu mendeurrenak bultzaturik berriro abian jartzea Zuricheko protokoloak deritzenak, 2009an abiatu baitziren bi nazioen arteko harreman diplomatikoei berrekiteko saio gisa eta urtebete geroago zapuztu baitzen saio hori beren harreman historikoei buruzko ikuspuntu desberdinen ondorioz.

Eusko Legebiltzarrak uste du mendeurrenak indartu egiten duela oroitzapen horren esanahi mingarria, eta bat egiten du 2015eko apirilaren 24an Erevanen (Armenia) izango diren ekitaldiekin, bat eginez, aldi berean, armeniar herriko biktimen senideen omenaldiarekin eta haiekiko elkartasunarekin, senide horiek gaur, oraindik ere, beren aurrekoen kontrako sarraskiaren ondorioak sufritzen dituztenez gero.

Azkenik, Eusko Legebiltzarrak bat egiten du nazioarteko adierazpen eta ebazpen instituzionalekin, bereziki Europako Parlamentuarenekin, Turkiako Errepublikari eskatuz armeniar herriari egindako genozidioa aitortu dezala. Halaber, dei egiten die bi nazio horiei memoria partekatu batean oinarritutako adiskidetzera".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2015eko apirilaren 16an.

Ontzat emana
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA
Visto bueno
LA PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO

Bakartxo Tejeria Otermin

comporta una verdad y una memoria sustancialmente compartidas. Creemos, por consiguiente, necesaria la existencia de un diálogo diáfano y sincero entre las autoridades de las repúblicas de Turquía y de Armenia para edificar un futuro común que permita cerrar definitiva y sanamente este trágico capítulo de la historia.

En este sentido, abogamos por que este centenario constituya un catalizador para el reinicio de los llamados protocolos de Zurich, inaugurados en 2009, que constituyeron un ensayo para retomar las relaciones diplomáticas entre las dos naciones y que se frustró, un año más tarde, por las visiones dispares de sus relaciones históricas.

El Parlamento Vasco considera que este centenario realza el doloroso significado de esta remembranza y se suma a los actos que tienen lugar este 24 de abril de 2015 en Ereván (Armenia), uniéndose en el homenaje y solidaridad a los familiares de las víctimas del pueblo armenio, que hoy todavía sufren las consecuencias de la masacre ejercida contra sus mayores.

Por último, el Parlamento Vasco se suma a las resoluciones y declaraciones institucionales, en especial del Parlamento Europeo, demandando un reconocimiento a la República de Turquía del genocidio infligido al pueblo armenio. Hace, asimismo, un llamamiento a la reconciliación entre estas dos naciones, basado en una memoria compartida".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2015.

MAHAIKO LEHEN IDAZKARIA
EL SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA

Antonio Damborenea Basterrechea

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus